

GLORIA

LIERNI OSA ETA MIKEL LARRAÑAGA

BERRIKUNTZEN BELAUNALDIA





Euskararen plaza gara, herriaren irudia eta komunitatearen ahotsa

B
BALEIKE

K
KARKARA

erlo
ERLO

MAXIXATZEN

KH
UROLA KOSTAKO
HITZA

UZTARRIA

ZH
ZARAUZKO
HITZA



**HEDABIDEekin
ERE BAI**

ZER DIREN GAUZAK



MAIALEN ETXANIZ

Ezagutzen nautenek ondotox dakite zein urrun gelditzen zaizkidan kirolak. Adarra jotzen didate sarri, kirola egiteko tarterik hartzen ez dudalako, nahiz eta beti nabilen bat edo beste praktikatuko nukeela esaten. "Tartea ateratzea beti da posible", diote. Hori esaten nion amari, denborarik ez zuela esaten zidanean. Baina zer diren gauzak.

Azken urteetan kirolera gehien hurbildu nauena, zoritarrez, kazetari lana da. Urolako toki hedabideetan lan egiteak badiu gauza bitxiak. Lehorrekoa izanik aurten Zarauzko estropaden berri ematea tokatu zait, baita Getariak denboraldi ederra egin duela kontatzea ere. Getariako Iku-rrina jokatzeko zela ez nekien, baina aurten han izan naiz, emakume getariar jatorrekin arraunaz solasean. Arraunaz

gain, tokatu izan zait Zumaia-ko triatlóiaren berri ematea edo Azpeitiko 40 Miliak lasterketaren jarraipena egitea. Pilotan aritzen direnekin ere elkartu naiz aurten. Azpeitiak talde berria atera du Herriartekoan, eta pilotari gazteekin kontu-kontari ibili nintzen. Hori eta beste hainbat konturen berri eman behar izan dut, kirolerako apenas tarterik hartu ez dudana bitartean.

Oraindik gogoan dut Larrañagak eta Txikonek jokatu zuten apustua. Bideo bat egin genuen apustuaren atariko gisa. Azpeitiko zezen plazan aurkeztu zuten desafioa, eta han ginen gu. Apustuaren egunean Donostian nintzen ni, Azpeitiak Herriarte-

Ezjakintasunetik ikusi dut azken urteetan aldaketa izan dela herri kirolen munduan, bai ikuskizunean, bai zaletasunean.

koaren finala jokatzeko baitzuen. Irabazi egin zuen, Larrañagak apustua irabazi zuen bezala. Orduz geroztik, baina, herri kirolen apustu eta txapelketa ugariren berri eman behar izan dut. Nire ezjakintasunetik ikusi dut azken urteetan ikaragarriko aldaketa izan dela herri kirolen munduan, bai ikuskizun aldetik, bai zaletasun aldetik.

Pentatlóiaren kanporaketak eta finalak bertatik bertara jarraitzeko aukera izan dut kazetari gisa. Eta zer diren gauzak: pentatlóiak lortu du 22:00etan lanera gogorik gabe joan, eta 01:00etan etxera itzultzean, etxekoei "Ederra erakustaldia! Mundial pasatu dut" esatea. Garaiak aldatu dira, eta garai berriko protagonistetako bi dira Lierni eta Mikel. Plazera izan da haiekin elkartu eta herri kirolen inguruan gehiago jakiteko aukera izatea. Ziur datozen urteetan plazetan ikusiko dugula elkar. ■

Argitaratzailea:

Urolako Komunikazio Taldea

Zuzendaria: Onintza Lete Arrieta

Tirada: 7.750 ale



Enpresa laguntzaileak:



DANOBATGROUP



HERRI KIROLAK BIZITZEN ETA BIZIBERRITZEN

Lierni Osa eta Mikel Larrañaga

Herri kirolen mundua asko aldatu da urte gutxitan, eta horretaz jabetuta daude Mikel Larrañaga aizkolari azpeitiarra eta Lierni Osa harri jasotzaile zarauztarra. Larrañagak urte mordoxka daramatza aizkoran, eta aldaketak gertu-gertutik ikusi ditu. Osa duela urtebete hasi zen harria jasotzen, baina denbora horretan emakumeen presentziak gora egin duela iruditzen zaio.

Testua: **Maialen Etxaniz**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.

Herri kirolek gorakada nabarmena izan dute azken urteetan. Horiei lotutako ikuskizun berriak sortu dituzte eta hainbat apustu jokatatu dira Euskal Herrian. Azpeitiko zezen plaza herri kirolen plaza bilakatu da azken urteetan, eta, besteak beste, Euskal Pentatloi Sariaren eszenatoki bihurtu da. Bertan elkartu dira Mikel Larrañaga (Azpeitia, 1989) aizkolaria eta Lierni Osa harri jasotzailea (Zarautz, 1995). Parez pare jarri dira, orain arte egin dutenaz nahiz herri kirolek izan duten eboluzioaz aritzeko.

Biak ala biak kirolariak eta kirol zaleak dira. Biak herri kirolen belaunaldi berrikoak. Larrañagak zerrategi batean egiten du lan, eta kirol munduan ibilbide oparoa du dagoeneko. Hainbat titulu eskuratu ditu: Urrezko Kopa irabazi zuen iaz, baita Gipuzkoako Aizkora Txapelketa ere. Desafioak ere jokatu izan ditu.

Osa makilatzailea da ogibidez, eta amarekin egiten du lan haren estetika zentroan. Betidanik atsegin izan du kirola, eta azken bost urteetan crossfitean eta halterofilian aritu da. Behin herri kirolen mundura salto eginda, hainbat txapelketatan parte hartu du. Bi kirolariek ondo baino hobeto azaldu dute nor diren eta zeintzuk diren epe luzera zein motzera begira dituzten erronkak.

Nor da Mikel Larrañaga eta nor Lierni Osa?

Mikel Larrañaga: Duela hamaika-hamabi urte kuadrillan egindako aizkora apustu batekin hasi, pixkanaka-pixkanaka herri kirolen munduan sartu, eta aurreko muturreraino iritsi den pertsona bat; urtez urtez, borrokan, lanak ahalik eta ondoen egiten saiatzen ari den pertsona.

Lierni Osa: Herri kirolen munduan oso berria den pertsona naiz. Aurrez kirol desberdin



ugari probatu ditut. Txorrada bat tarteko probatu nuen aurrenekoz harria jasotzen, eta azkenean, kirol horretaz maitemindu egin naiz.

Nolakoak izan ziren zuen hastapenak herri kirolen munduan?

M.L.: Joan diren azken hamar urteetan asko aldatu dira gauzak. Jende berri asko hasi da herri kirolak praktikatzeko, eta nabaria izan da emakumeen azaleratzea; asko atera dira plazara. Lehen ez zen emakumerik ikusten herri kirolekin. Itxura polita hartu du herri kirolen arloak. Nabaria da berrikuntza egon dela, eta orain lehengo aldean desberdina da; politagoa eta modernoagoa. Aldatu dira lekuak, plazak, kirolariak, emakumeen presentzia...

L.O.: Mikelek esan duen bezala, orain asteburu izaten dira emakumeak plazan. Ia astero izaten ditugun erakustaldiak edo txapelketak, eta hori oso-oso pozgarria da niretzat. Izan ere, ni harria jasotzen hasi nintzenean, duela urtebete, oso emakume gutxi aritzen ginen horretan. Txapelketa bat egitea bera ere zaila zen orduan. Orain, aldiz, izugarria da parte hartzea. Joan den udan, esaterako, emakume ugari parte hartu genuen Igeldo Harria txapelketan; hamabi ginen, eta hori izugarria da.

Nork eman zizueten herri kirolekin animatzeko azken bultzada? Izan al zenuten laguntzarik edo babesik?

L.O.: Nire entrenatzaileak [Izeta II.a] emakumerik ez zuela entrenatu nahi esaten zuen hasiera haietan. Errespetua ematen zion, eta gizonentzako moduko kirola zela pentsatzen zuen. Ostolaza eskolan emakumeak entrenatzen hasi zirenean ohartu zen horiek kirol horretan aritzea ere posible zela, eta bere baitan zera pentsatu zuen: "Zergatik ez emakumeak entrenatu?". Ni izan nintzen bere aurreneko proba edo, eta gaur egun bost neska aritzen gara berarekin. Beraz, entrenatzailearen laguntza ezinbestekoa izan zen nire hastapenetan.

M.L.: Nire kasuan, ezinbestekoa izan da Inixio Zendoiairen laguntza. Hamar urte hauetan ez dit sekula hutsik egin, eta beti egon da hor, entrenamenduetan zein erakustaldietan

babesa eta laguntza adierazten. Guztia kua-drilla arteko apustutik hasi zen arren, Zendoiak jarri zuen nigan konfiantza; izan ere, nirekin egiten zuen lan zerrategian. Esaten zidan banuela aizkorarako 'zerbait', eta zergatik ez ginen txapelketetan parte hartzera animatzen galdetu zidan. Azkenean, horretan hasi ginen, eta, pixkanaka, gaur arte. Orduz geroztik ez dit egun bakarrean ere huts egin.

Aurrez aipatu duzuen bezala, gauzak aldatu egin dira herri kirolen munduan, eta zuei ere jarri zaizue etiketa bat. Herri kirolen belaunaldi berria zarete. Zer ezaugarri ditu belaunaldi edo aro berri honek?

L.O.: Nik, gehienbat, zaleen artean nabaritzen dut aldaketa izugarria. Jende askoz gehiago ikusten dut plazetan, txapelketak ikusten... Agian, guk bultzatu dugu hori, nolabait, jende berria ari delako erakustaldietan parte hartzen eta emakumeak ere aritzen garelako. Eta, horri lotuta, emakumeen presentzia ere sasoi honetako ezaugarri nabarmena da.

M.L.: Liernik esan duen bezala, emakumeen presentziarekin eta martxan jarri dituzten txapelketa berriekin, pentatloiarekin eta... gazte jende gehiago animatzen da plazara. Lehen gazte gutxi ikusten zen ikusleen artean, gehienez parte hartzen zutenen lagunak eta. Orain, helduak ere joaten dira ikuskizunetara, baina nabarmena da jende gazte gehiago joaten dela. Hori pozgarria da lehian ari denarentzat nahiz herri kirolentzat, eta, horrenbestez, baita aizkorarentzat ere.

Crossfitaren loraldiak ba al du herri kirolaren gorakadarekin loturarik?

L.O.: Bai, lotura baduela uste dut. Azken finean, crossfitaren mundutik datozen pertsona asko ikusten dira gaur egun herri kirolekin. Pentatloia, esaterako, crossfitaren oso antzekoa dela uste dut; bertsio euskalduna edo. Crossfitean aritzen den jende asko ari da ingude probetan eta parte hartzera animatzen. Korrikalaria baldin bazara eta pisuarekin sekula aritu ez bazara edo entrenatu ez baduzu, harria jasotzen hastea zaila dela esango nuke. Pisua erabiltzen den kirola egin baldin baduzu, errazagoa da pisua altxatzeko kirolak probatzea, izan harria, izan txingak...



Mikel Larrañaga eta Lierni Osa Azpeitiko zezen plazan.

"Zaleen artean aldaketa izugarria nabaritzen dut; jende askoz gehiago ikusten dut plazetan"

"Aizkolaritza kirol delikatua da. Urteak behar dira ikasteko, teknikatik asko baitauka"

"Kutsu modernoa, crossfit egiten duen jendea, herri kirolelara gerturatzea... pozgarria da"

Aizkoran hastea zailagoa izango da, ezta? Materiala behar da eta...

M.L.: Bai. Aizkoralaritza kirol delikatua da. Urteak behar dituzu ikasteko, teknikatik baitauka asko. Horrez gain, atzeko lan asko eskatzen du: egurra prestatzeko garaian, egurra ekarri egin behar da, horientzako lekua izan behar duzu, aizkorak erosteko baliabideak ere bai... Praktikatut ahal izateko, asko gustatu behar zaizu.

L.O.: Niri beti deitu izan dit arreta aizkolaritza, baina esan duzuen: lekua behar da, materiala... Eta hori konplikatu da. Ez da harri bat muturraren aurrean duzula eta hori jasotzen saiatzeko aukera daukazula... Zaila da aizkoran probatzeko aukera izate hutsa ere.

Lierni, aipatu duzu crossfitak baduela pentatloiarekin antzekotasunik. Dena den, bestelako teknika behar da harria jasotze-

ko. Nolakoa izan da zure garapena zentzu horretan? Zaila izan al da teknika ikastea?

L.O.: Guztiz desberdina da, bai. Gainera, zentzu horretan, nik badaukat harri kubikoarekin arazo bat. Hori da altxatzea gehien kostatzen zaidan harri mota. Crossfitean ezinbestekoa da gorputza zuzen edukitzea: bizkarra zuzen, besoak zuzen... Aldiz, harria jasotzerakoan dena da desberdina: bizkarra okerra, gorputza albo batera... Gaur egun, harria jasotzen nahiz crossfitean aritzen naizenez, batzuetan zaila egiten zait bi teknikak uztartzea, baina, tira, moldatzen naiz.

Azken urteetan ikuskizun berriak sortu dira, eta apustuek ere sona handia izan dute. Herri kirolek ikuskizun itxura hartze horrek jendea saioak ikustera animatu duela uste al duzue?

M.L.: Nire iritziz, hori guztia ona da herri kirolentzat. Lehen aipatutako kutsu berritzaile edo moderno hori, crossfit egiten duen jendea herri kirola gerturatzea... Dударik gabe, pozgarria da. Herri kirolentzako izan daitekeen gauzarik onena da gazte jendea herri kirolen zale egitea. Herri kirolek azken urteetan izan duten gorakada nabarmena da, eta horrek horrela izaten jarraitzen badu, are nabarmenagoa izango da datozen urteetan izango duen indarra.

Aipatu duzun bezala, azpimarratzekoa da txapelketek hartu duten ikuskizun itxura. Argi handiek, txapelketak gauez jokatzek, telebistak saioak zuzenean emateak, irudiak drone bidez grabatu eta beste perspektiba bat erakusteko... Horrek guztiak ematen dio itxura berritzaile kirolari, eta ikuskizuna erakargarriago egiten du. Horrela, saioa edo txapelketa telebistan ikusten ari denak hurrengoan plazan bertan ikusi nahiko du, eta plazan jende asko elkartzeko bada, giro ederragoa sortuko da... Kate bat da, eta horrek mesede egiten dio kirolari eta kirolariei.

Txapelketa formatutik kanpoko saioak ere egiten dituzue sarri. Jendeak ba al du eskaintzen dituzuen erakustaldietara joateko ohiturarik?

L.O.: Jende pila bat joaten da erakustaldietara, harritura gelditzen naiz! Orain arte, sekula ez naiz joan herri kirolak ikustera, eta agian

horregatik da, baina harritura gelditzen naiz herri txikietan aritzen garenean saioak ikustera joaten den jende kopuruarekin. Oraindik orain, erakustaldietara joaten garenean, entrenatzaileari zera galdetzen diot: "Baina nora goaz? Joango al da norbait gu ikustera?". Eta iritsitakoan sekulako sorpresa hartzen dut zenbat jende egoten den ikusita.

M.L.: Horrela da, bai. Herri txikietako biztanleak eta aspertuta daude festetan beti-betiko kirolariak ikustearekin. Orain, belaunaldi berrien ustea iritsi da, eta haiek ikustera jende ugari joaten da. Edozein herri txikitara joaten bazara, jende pila elkartzeko da erakustaldietan. Herritarrek zerbait berria ikusi nahi dute, jende berria... Azken urteotako belaunaldi berriek lortu dute herri txikietako zaleak erakustaldietara erakartzea.

Zaleez hitz egitean, zuentzat jende gaztea emanaldietara joatea garrantzitsua dela aipatu duzue. Baina kirolari bezala, zer ematen dizue belaunaldi berri bateko kide izateak? Nolako giroa dago zuen artean?

L.O.: Niretzako bada motibatzeak arrazoi bat. Alde batetik, gure artean dugun giroa ederra da; bestetik, egiten dugunak eragina baduela ikusten dugu. Izan ere, jende gazteagoak, gaztetxoek-eta, egiten duguna jarraitzen dutela ikusten dut, eta hori izugarria da. Gaztetxoek harria jaso nahi dutela esatea arraroa da, ni txikia nintzenean horrelakorik ez baitzen ikusten.

M.L.: Lehen ez bezala, gaztetxoek herri kirolak jarraitzen dituzte gaur egun. Gertatu izan zait mutil koskor bat argazki eske etortzea, edo ezpal bat eskuetan duela, hura sinatzeko eskatzea. Hori arraroa egiten zaigu oraindik, gu ez gara horren famatuak sentitzen. Gainera, lotsatu egiten gara. Futbolariak bagina sikiera... Gure artean dugun gertutasuna ere aipatzekoa da, bai.

Elkarteak ezinbestekoak dira herri kirolak sustatzeko, baina azken urteetan enpresa pribatuek ere eman diete bultzada egitasmoiei. Zer iritzi duzue herri kirolek jasotzen duten laguntzaz edo ematen zaaien babesaz?


L.O.: Harri jasotze munduan babesleen sostengua dugu gehienbat. Gure eskolak



"Jende pila bat joaten da erakustaldietara, harrituta gelditzen naiz!"

"Erreferente gisa ikusten ditut Karmele Gisasola eta Udane Ostolaza; ez dute etsi!"

"Lehen ez bezala, gaur egun gaztetxoek herri kirolak jarraitzen dituzte!"





Larrañaga aizkorarekin.

baditu patrozinatzaileak, eta zentzu horretan, nahiko babestuta dago gure lana. Nik, aparte, badut nire babesle propioa. Ezin gara kexatu.

M.L.: Gure kasuan –aizkolaritzaren puntan gauden hogeai aizkolaria– garrantzitsuak izan dira enpresak, bai. Duela bi urte inguru Sherpa Ai izeneko enpresa bat etorri zen gugana, babesle izateko prest zegoela eta. Txapelketak antolatzen ditu, eta zentzu horretan, oso gustura gaude. Aurten ere bildu gara haiekin, eta luzera begira ere gurekin lanean aritzeko prest daudela adierazi digute. Hori oso garrantzitsua da aizkolariontzat.

Eta erakunde publikoek behar beste laguntzen al dute?

M.L.: Iruditzen zait erakundeek gehiago lagundu beharko luketela. Azken urteetan, kontu hori tarteko izan ditugu tira-birak Aizkolaria Federazioarekin. Federazioak esaten zigun diru gutxi jasotzen zuela erakundeetatik. Are, azken urteetan federazioak jasotzen zuen diru

kopurua gutxitu egin zela ere esan ziguten, eta horrek ondorioak zituen sarietan, txapelketetan... Horrelakoek kaltea besterik ez dute eragiten. Beraz, uste dut herri kirolek urtez urte indarra hartu dutela ikusita, erakundeek ere hor egon beharko luketela laguntzen eta babesten, guztion artean ekarpena eginda, indar handiagoa har dezaten.

Aurrez aipatu duzuen bezala, emakumeen parte hartzeak izan duen gorakada nabarmena izan da azken urteetan. Zergatik dela uste duzue? Norbaitek egin al du emakumeak plazara eramateko ahalegina?

L.O.: Erreferente gisa ikusten ditut Karmele Gisasola eta Udane Ostolaza. Hor egon dira beti, eta ez dute etsi. Haiek izan ziren plazara ateratzen aurrenak, eta uste dut ez zela erraza izango; beti da zaila aurrenekoa izatea. Haiek jarraitu dutenez, beste hainbat emakume ere animatu gara. Horrez gain, inguruko en eta entrenatzaileen babesa ere garrantzitsua izan da.

Emakume izateagatik presiorik nabaritu al duzu?

L.O.: Hasieran, bai. Orain, agian, ohitu egin naiz, eta ez dut halako presiorik. Niri beti esan izan didate ez naizela harri jasotzaile profileko emakumea, tartean, itxuragatik. Horregatik, denetarik entzun izan dut, gauza onak nahiz txarrak, baina denborarekin azala egin zait. Gainera, orain neska ugari gaudenez plazetan, normalizatu egin da kontua.

Ikusten den horretaz aritu gara, baina zuen lanak ikusten ez den atzeko lan asko du.

Nola prestatzen zarete txapelketetarako eta nork laguntzen dizuete egunerokoan?

M.L.: Egutero entrenatu beharko nuke zer bait, baina ez daukat horrenbeste denbora. Beraz, lanetik ateratakoan, astean bi-hiru egunez aritzen naiz aizkora. Asteburuetan erakustaldirik ez baldin badaukat, entrenatzeko ere aprobeztatzen dut. Gainerakoan, mendi buelta batzuk egiten ditut. Entrenamendua osatzeko, ordea, lan asko egin behar da aurretik. Errazena da joan eta enborra moztea, baina horretarako, aurrez beste gauza batzuk egin behar dira. Egurra prestatzeak bere lana ematen du, baita hura jasotzeak ere. Beraz, hurrengo

entrenamendu saioa egin aurretik aurrez ebakitakoak garbitu behar izaten ditugu. Entrenamendu bakoitzaren atzean dirudiena baino lan gehiago dago. Laguntzen didana Inxio da, eta bion artean aritzen gara, ahal den moduan.

L.O.: Astean bost aldiz entrenatzen dut, eta asteburuetan, normalean, erakustaldiren bat edo txapelketaren bat izaten dut. Harriarekin entrenamenduak astean bitan egiten ditut, eta horiek ordubetekoak edo ordu eta erdikoak izaten dira. Beste hiru egunetan crossfit egiten dut, erresistentzia pixka bat irabazteko eta. Beti hor dagoen pertsona, nire kasuan, Joxe Ramon Izeta da; ikaragarri laguntzen dit beti. Errieta mordoxka ere egiten dit, baina beti hor dago, laguntzeko pronto. Eta, noski, Andoni Iruretagoiena [Izeta VI] ere bai. Harekin entrenatzen dut crossfitean ere, eta babes handia da niretzat. Horiez gain, garrantzitsuak dira taldeko beste neskak. Bost emakumeko taldea daukagu, eta asko laguntzen diogu elkarri eta babesten dugu elkar.

Nolako izaten da zuen eguna txapelketaren bat duzuenean?

L.O.: Ingurukoei ez nagoela urduri transmititzen saiatzen naizela uste dut, baina barrutik oso urduri egoten naiz. Ahalegintzen naiz lo asko egiten, asko jaten...

M.L.: Esnatu ostean eguna lasai hartzen saiatzen naiz. Ni urduri azken ordu eta erdian jartzen naiz. Behin plazara iritsitakoan jartzen naiz urduri, nahiz eta urte asko daramatzadan aizkoran. Pentsatzen nuen urteekin joaten zen zerbait zela urduritasuna, baina ez dela horrela ohartu naiz.

L.O.: Uste dut, bere horretan urduritasuna sentitzea ona dela, ezta?

M.L.: Hori esaten dute, bai: urduri ez baldin bazaude nerbiorik ez duzun seinale.

Zer eduki behar du aizkolaria on batek eta zer harri jasotzaile on batek?

M.L.: Niretzako ez dago perfektua den aizkolaririk. Denetarik izateko indarra beharko luke, bularra, egurra mozten artista izatea, baina arlo guztietan bezala, ez dago perfektua den inor. Dena den, badaude aizkolaria izateko beharrezkoak diren ezaugarri orokorrak.



Osa 250 kiloko harriarekin.

Esaterako, gaur egun lehen mailan ari diren aizkolarien profila begiratuz gero, ia denek neurtzen dute 1,80 metrotik gora. Nire iritziz, badu garrantzia pertsonaren tailak – tamainuak –, aizkolaria palanka egiteko aukera gehiago eskaintzen baititu horrek. Aizkolaria heltzeko orduan ere abantaila ematen du horrek.

L.O.: Kanpotik begiratuta, badirudi harri jasotzaile on batek indarra ezinbestean behar duela, eta uste dut askoz-askoz garrantzitsua goa dela teknika. Indarra baldin badaukazu baina teknikarik ez, ez duzu harririk jasoko, eta alferrik zabiltza. Beraz, gehienbat teknika behar da, eta bularra ere bai, noski.

Mikel, zuk dagoeneko ibilbide oparoa duzu, eta txapel ugari jantzi dituzu. Ba al dago zuretzako berezia den lorpenik?

M.L.: Egia esan, ez. Irabazten dudana txapel bakoitza da aurrena bezain garrantzitsua, edo aurrenak bezain beste ilusioa egiten dit. Azken

finean, ahalik eta lorpen zein txapel gehien eskuratzeko asmoarekin jarraitzen dut aizkoran. Beraz, horiek guztiak borrokatzen ditut, eta irabazitakoan denak dira pozgarri. Iruditzen zait borrokatzeko grina eta ilusioa itzaltzen zaizkidanean iritsiko dela aizkora uzteko momentua. Beti esaten nuen aizkolaritzaren puntara iritsiko ez banintz, utzi egingo niokeela aizkoran aritzeari, baina iristekotan, borrokatu egingo nuela. Iritsi naiz horra, eta hor eusten diodan bitartean, maila ematen dudan artean, jarraitu egingo dut. Ilusioa galtzen eta maila jaisten ari naizela nabaritzen dudan egunean utziko dut aizkora.

Irabazi ez ezik, galdu ere egin dituzu zenbait txapelketa eta apustu. Ba al duzu atera nahi duzun arantzarik?

M.L.: Batzuk galdu ditut, bai [barreak]. Igarotakoekin, ahaztu egin behar. Zaila izaten da horrelakoekin ahaztea, baina datozenei begira jartzea besterik ez dago. Pasatutakoak ahaztu eta etorriko direnekin gozatu.

Apustuek badute zerbait berezia: irabazi edo galdu egiten dira. Horrek egiten al ditu berezi?

L.O.: Uste dut apustuak galtzeak psikologikoki ere eragin behar duela, ezta? Hau da, kolpea izango da prestatzen aritu eta galdu egin duzula jakitea. Era berean, apustua irabazteak adrenalina edo motibazioa eman behar duela iruditzen zait.

M.L.: Horrela da, bai. Apustuek badute zirrara berezi bat, bai jokatzeko ari denarentzat, baita ikusten ari direnentzat ere. Euskal Herrian apustua tradizioa da, eta herri kirolek asko izan dute apustutik.

Oraindik orain ez da egon emakumeen arteko apusturik. Aurreikusten al duzue halakorik?

L.O.: Proposamena mahai gainean egon da, baina errespetua ere ematen du. Niri gustatuko litzaidake apusturen bat jokatzeko. Dena den, ikusteko dago...

Liarni, zuk bidea hasi besterik ez duzu egin. Nola begiratzeko diozu etorkizunari?

L.O.: Orain artekoa hasiera bat da niretzat. Urtebete bakarrik daramat honetan, eta jarraitzeko asmoa dut; oso gogotsu nago.

Niri harri baldarrak gustatzen zaizkit gehien, eta horregatik, bereziki lortu nahiko nuke Igeldoko Harria sariketako txapela janztea.

Igeldoko Harria erronka gisa aipatu duzu. Kirolari gisa, zer beste helburu dituzue epe motzera eta luzera begira?

L.O.: Epe oso laburrean daukat hurrengo sariketa. Urriaren 9an jokatuko dut Harri Txikien Gipuzkoako Txapelketa, eta hori da epe motzera begira daukadan erronka. Dena den, aurrez esan bezala, nire helburua Uliako Harria txapelketan lehen postuan sailkatzea da. Aurten hirugarren postua lortu dut, eta ea denborarekin goiko puntara iristea lortzen dudan.

M.L.: Lortzea falta zaidan txapelketa bakarra irabaztea gustatuko litzaidake niri: Euskal Herriko Aizkolari Txapelketa. Hori da nire ilusioa. Uste dut aizkolari baten helburu nagusia Euskal Herriko txapela irabaztea dela, eta hori lortu artean dena ematen saiatuko naiz. Horrekin ez dut esan nahi behin hori lortutakoan aizkora utziko dudarik; saiatuko naiz bi eta hiru txapel lortzen. Euskal Herriko Txapelketa irabaztea da nire hurrengo erronka.

Elkarriketan zuen belaunaldiaren loraldiaz aritu zarete. Baina aurrera begira jarrita, ba al dago zuenaren ostean iritsiko den belaunaldirik? Ba al dago herri kirolen harrobirik?

M.L.: Aizkoran bai, badatoz kirolari berriak. Hor dabilta 20-22 urteren bueltako mutil gazteak lehen pausoak ematen. Maila ona erakusten ari dira, nahiz eta oraindik ikasteko asko duten. Hasiberriak dira, ordea, eta urteen poderioz teknika ikasten eta fintzen joango direla iruditzen zait. Jende gaztea atzetik badatorrela uste dut.

L.O.: Harri jasotzaileen harrobia badagoela uste dut nik ere. Imaginatu, astero izaten dut norbait harri jasotzaile izan nahi duela edo harria jasotzen hasi nahi duela esaten. Hori ikusita bakarrik, harri jasotzeak baduela etorkizuna esatera ausartzen naiz.

Zer mezu emango zenioke zuek egiten duzuen kirolean aritu nahi duten baina lehen urratsa ematera ausartzen ez diren herritarrei?



"Nire helburua Uliako Harria txapelketan lehen postuan sailkatzea da"


"Lortzea falta zaidan txapelketa irabaztea gustatuko litzaidake: Euskal Herriko Aizkolari Txapelketa"

M.L.: Ilusioa baldin badaukate aurrera egiteko eta probatzeko esango nieke. Sakrifizio handia eskatzen du, baina beste kirol eta gauza guztiek bezalaxe. Beraz, atsegin izanez gero, saiatzeko eta animatzeko esan nahi diet. Saiatzearen poderioz, beti lortzen da zerbait.

L.O.: Probatzeko eta saiatzeko. Momentu zail eta txar asko egongo dira, une gogorrak. Mikelek esan duen bezala, sakrifizio handia eskatzen duten kirolak dira, baina konpentsatzen du, bete egiten zaitu, baita indartu ere. Sufritzen ikasten da, nolabait. Beraz, beldur guztiak uxatu eta saiatzera animatuko nituzke guzti-guztiak, izan emakumeak zein gizonak. ■



Ikusi eskusiban Mikel Larrañagari eta Lierni Osari egindako elkarrizketa QR kodea eskaneatuta.



Desnibela 387 metro
Zailtasuna ★ ★ ★ ★ ★
Luzera 5,8 kilometro
Denbora 1ordu eta 39minutu

Erreferentziak
0:00 Abaraxka aterpetxea
0:35 Indusketa gunea
0:39 Munoandi
1:03 Leiztiko iturria
1:39 Abaraxka aterpetxea



AZKOITIKO HISTORIA EZAGUTZEN

MIREIA GALARZA BASTIDA

Denon garunean esekita dago pandemiaren ondoriozko berrogeialdia, baita amaitu berritan egindako lehen txangoak ere. Askok, ordea, jendetzak saihesteko helburuarekin, bide ezezagunagoetatik egiten zituzten pasierak, eta horietako bat da hilabete honetakoa.

Hain zuzen, Abaraxka aterpetxea da abiapuntua, eta handik goraka jarraituz hasten da ibilaldia. San Martin auzoko azken borda eta etxetxoak igarota, pinuek inguratutako eremura iritsiko da mendizalea. Goraka jarraitu behar da uneoro, eta hainbat bidegurutze badaude ere, ez dago galerarik, Munoandira iristeko seinaleak baitaude bidean.

Munoandiko tontorrera iritsi aurretik, bi hesirekin egingo du topo mendizaleak. Eskubikoa hartu, eta azken aldapatxoa igota, inguruko paisaiatzat aukera paregabea izango du. Azkoitiko herriaz gain, Azpeitia ere ikus daiteke bertatik, baita Kakute, Xoxote edo Txalintxo mendiak ere. Tontorrean erpin geodesiko bat dago, argazkiak atera nahi dituenarentzat. Baina argazkiak ateratzeko moduko beste zerbait ere bada inguruan, eta horretarako tontorretik aurrera jarraitu eta beheranzko norabidea hartu beharko du mendizaleak.



Bertan, Munoandiko indusketa gunek ikusi daitezke, Aranzadiren eskutik egiten direnak duela 15 urte ingurutik. Zehazki, Burdin Aroko herri harresitua da Munoaundi.

Bide zirkularra egin eta hesia zegoen bidegurutzera iritsiko da mendizalea berriro, eta etorritako bidearen kontrakoa jarraitu beharko du, nahiz eta bide beretik itzuli daitekeen. Aurrera jarraitu eta dena izango da beherazko bidea, inongo galbiderik gabe. Bidean txabola txiki batzuk ere ikusi daitezke, baita Kukuherriko errepeidea ere. Aipagarriena, ordea, Leiztiko iturria da. Bidean zehar, nekeak erasanez gero, mendiko ur frexko-frexkoa edateko parada izango du txangolariak. Handik aurrera ere, bide dena beheraka egingo du, berriro ere Abaraxka aterpetxera iritsi arte.

Motzean

Ibilbideari ekiteko, autobusez irits daiteke Azkoitira; geltokitik herriko goiko partera oinez joan, Abaraxka aterpetxera iritsi arte, txangoa handik hasteko. Autoz joanez gero, Abaraxkan bertan utz daiteke ibilgailua, eta zuzenean handik abiatu. ■



Ikusi Anaitasuna Mendi Bazkunako Leire Garate eta Alaitz Oruesgasti Xabat Olaizola aurkezlearekin mendi txangoa egiten.



TELEBISTAN ERE
GUKA! 